

«Kontseiluak, ELAk eta LABek euskaraz lan egiteko eskubidea aldarrikatzen jarraituko dugu»

Azken 40 urteetan euskararen normalizazio politikek, muga eta gabezia guztiekin ere, garapena izan dute hainbat alorretan; lan mundua euskalduntzeko, ordea, enpresen boluntarismoa sustatzean oinarritutako politika apalak soilik garatu dira. Horren emaitza da, ezinbesteko esparrua izan arren, gaur gaurkoz %1era ere ez iristea euskara-planak dituzten entitateen ehunekoa, eta enpresen botere harremanek langile euskaldunak erdaraz lan egin behar izatera behartzea. Gainera, behin eta berriro urratzen da langileek euskaraz lan egiteko duten eskubidea.

Adierazitako egoera kontuan izanik, eta lan mundua euskalduntzeko eta langileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko garrantziaz jakitun, orain urtebete ELAk, LABek eta Euskalgintzaren Kontseiluak lan mundua euskalduntzeko dinamika bat martxan jarri genuen. Saiakera horren abiapuntua akordioari aukerak ematea izan da. Horrela, hiru eragileek uko egin diogu gure eskaera propioak aldarrikatzeari ekimen honetan, patronala eta beste sindikatuak ere eroso egon zitezkeen abiapuntu baten bila. Hartara, ELarentzat, LABentzat eta Kontseiluarentzat horrela definitu genuen gutxieneko adostasunak eraikitzeke proposamena: **50 langiletik gorako lantokietan langileen ordezkariak edo enpresarenak eskatzen dutenean enpresetako euskara-planari buruzko negoziazioa irekitzea**. Neurri horrek, enpresa kopuru mugatu bati, baina Hego Euskal Herriko langilegoaren erdiari eragingo lioke.

Ohartzen ginen, proposamen horrek ez zuela enpresa horietan euskara-planak garatzeko bermerik eskaintzen, soilik horri buruz hitz egin behar izatea baitzekarren. Horrekin batera, ohartzen ginen euskara-planak abiatuta ere, halakoetan egin ohi denez, garatu beharreko neurriak adostasunez definitzera eramango gintuela gerora ere. Hau da, enpresak ez dituela konpromiso zehatzetara lotzen. Halere, enpresan euskararen normalizazio-prozesua egituratzeko eta sistematizatzeko urratsa emateko aukera emango liguke. Enpresetan euskara-planak egin beharra mahai gainean jartzeko lehen urratsa iruditzen zitzaigun. Gainera, sindikatuok eskaera hori ahalik eta enpresa gehienetara eramateko zeregina eta konpromisoa hartu genuen.

Proposamen hori oinarri hartuta, harreman-erronda zabala egin genuen beste sindikatuekin, alderdiekin eta instituzioekin. Harreman horien helburua patronalari luzatu beharreko proposamenak ahalik eta babes eta bultzada zabalena eskuratzea izan zen. Harreman-erronda horren ondotik, sindikatu guztiak eta patronala biltzen dituen lanbidearteko akordiorako mahaia deitu genuen, proposamena bertan adosten saiatzeko. Bertan adostutakoak enpresa guztietan eragiten baitu.

Bada, esan behar dugu, bide honen amaieran Confebasken ateak erabat itxita topatu ditugula. Izatez, lanbidearteko mahaiko bilera egiteari ere uko egin zion. Jarrera ulertezina eta deitoragarria iruditzen zaigu. Halaber, Nafarroaren kasuan, CEN patronalak ez du gutxieneko interesik agertu bide hau jorratzen hasteko. Horrekin batera, hori bezain ulergaitza iruditu zaigu alderdi politikoen aldetik Legebiltzarrean eginiko proposamena babesteko adostasunik lortu ez izana, ez eta instituzioen aldetik ere inolako babesik eta bultzadarik adierazi ez izana ere.

Horrek guztiak biziki kezkatzen gaitu, ez baitakigu eragile horiek ohartzen ote diren eremu sozioekonomikoa euskalduntzeak zer nolako erronka kolosala dakarren gaur egungo gizartean. Ez dugu ulertzen halako eskaera xumeari, gaia agendan kokatzeari, gaiari buruz hitz egin behar izateari, funtsean, elkarrizketari, atak horrela ixtea. Eta atsekabetu gaitu gaur egun oraindik ere eragile bakoitza bere lubakitik aritu dela ikusteak, lankidetzarako proposamen zintzoari mesfidantzaz erantzunez.

Horregatik guztiarengatik, euren jarrerak berrikustera deitu nahi ditugu bidean elkarrizketatu ditugun eragile guztiak. Jarrera eta jokabide horiekin, borondate eta konpromiso falta horrekin, ez dugu uste langileen euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzea eta eremu sozioekonomikoa euskalduntzea posible izango denik. Ez gaur egungo baldintzetan.

Gainera, askotan aipatu dugu, baina berriro gogorarazi behar dugu, eremu sozioekonomikoaren euskalduntzeari begira une edo momentu estrategikoan gaude. Izan ere, datozen bi hamarkadetan Hego Euskal Herriko langileriaren erdia erretiroa hartzeko adinean egongo da. Belaunaldi aldaketa gertatzera doa, eta beraz, abagune paregabea izango da eremu sozioekonomikoaren euskalduntzean jauzia egiteko. Kontrakoa ere gerta liteke, ordea: neurri egokirik hartu ezean, belaunaldi hori erdaldunduko baitu eremu sozioekonomikoak. Eta, ondorioz, ezdeusean geratuko lirateke hezkuntzan belaunaldi hori euskalduntzeko egindako ahaleginak eta inbertsioak.

Hemen bildu garen hiru eragileon aldetik, argi eta ozen adierazi nahi dugu jasotako ezezkoek ez gaituztela geratuko. Ez dugu etsiko, eta ezezko horrek lantokietan Euskara Planak modu normalizatuan negoziatzea zaildu egingo duen arren, gure aldetik bide horretan urrats berriak egiteko asmo sendoa berresten dugu. Horretarako, ELA, LAB eta Kontseilua aukera eta bide berriak aztertzen ari gara. Oraingoz, CCOOrekin eta Adegirekin izan ditugun harremanetan mahai gaineratutako aukera batzuk lantzen jarraitzeko asmoa dugu. Horrekin batera, aurten Euskaraldia izango dugula baliatuz, enpresaz enpresa bertan parte hartzeko dinamika bateratua martxan jartzeko aukerak lantzen ari gara. Horrela, enpresek Euskaraldian izena eman dezaten lan egingo genuke eta, ondoren, enpresa horietan Euskara Planak martxan jartzeko aukerak landuko genituzke.

KORRIKAK herri gogo indartsu eta konprometituaren milaka irudi erakutsi dizkigu. Eta, nola ez, bai eta bi mezu nagusi ere. Batetik, gure hizkuntzaren normalizazio-prozesuak presa duela, hartara, neurriak eta konpromisoak behar dira aurrera egingo badugu. Bigarrenik, hitzetatik ekintzetara jauzia egin beharra aldarrikatu dugu ehunka mila euskaltzaleok. Horrexegatik, beraz, lan munduaren euskalduntzean hitzetatik ekintzetara pasatzeko dei egin nahi diegu eragile guztiei.